

# — ESCALADA —



*Ogoño, desde el mar  
y desde tierra.*

Itsasoa, kaioak,  
artadia, haitza...


## OGOÑO

PATXI AZPIROZ

**I**TSASOTIK jasotzen den haitza honetan, eskalatzeko bideak bazirela eta, 90ko neguan (negu epela) hainbat bide ezagunak eta ezezagunak aurkitu genituen. Tokiak merezi zuela eta, bide guztiak ekipatzea erabaki genuen...

Zulo eta zulo..., hemen dituzue bertan ekipaturiko bide zahar eta berrien aipamenak:





«Mailua», 2. luzea.

**5 INTERROGAZIOA** bidea (O.Z. goiti)

Bide honen zabalkuntza eta jatorrizko ize-  
na ez dugu ezagutzen. Zabaltzaileen adie-  
razpenen zain, izen honekin adierazten  
burutu zaigu. Pausu ezberdineko bidea: ba-  
barea, tximinia, diedroa, plaka, e.a., oso  
interesgarria.

**6 CABALLO QUE RIE-INDEPENDENTZIA**  
irteera (G.Z. beheiti)

Beheko zatia Txema Camara eta Javi de  
Diegok zabaldua 82an. Irteera Patxi Azpiroz  
eta Josu Gartzia zabaldu 17-9-91 an.

91ko irailean bide honetan sartuta, kontu-  
ratu ginen lehendik norbait igarota zegoela  
lehenengo zatian (erdiko errepisatik goiko  
errepisaraino doana). Geuk, bidea goraino  
jarraitu nahiean, irteera berri bat aurkitu ge-  
nuen «Jai Egin»en azken luzearen eskubian.  
Bi bideak hartuta, G.Z. beheiti zailtasuna  
duen bidea gelditzen da.

**7 KAIO KUME** bidea (O.Z. goiti)

Patxi Azpiroz, Mari Olabarria eta Damaso  
Gallastegik zabaldua 20-10-90an.

Bide klasikoa, diedro ederrekin. Azken lu-  
zea Ogoñon politenetako bat.

«Amagoia», 2. luzea.

**1 MAILUA** bidea (O.Z.)

Joseba, Peque eta J. Orejasek zabaldua  
86an.  
Bide polita harri onean.

**2 IZARO IRLA** bidea (O.Z.)

Joseba, Peque eta J. Orejasek zabaldua  
86an.  
Lehenengo bidearekin batera, batetik bes-  
tera igarotzeko hainbat toki aurkitzen dira.

**3 AMAGOIA** bidea (G.Z. beheiti)

Patxi Azpiroz eta Josu Gartzia zabaldua  
90ko udabarrian.  
Hunkigarria. Sapaitsua eta hutsunez bete-  
tako bidea. Hirugarren luzeko zati batean  
harri oso hautsia.

**4 JAI EGIN** bidea (G.Z. beheiti)

Jesús Gómez, Ion Lores, José Luis Ruiz  
eta José Luis Zuloagak zabaldua 5-4-81 an.  
Pyrenaicatik ezaguna. Azken luze gogo-  
rra, ekipatu ondoren oso ondo gelditu da.



Fotos del autor.



**8 DE LAS GAVIOTAS** bidea (O.Z.)

Quique de Pablos eta Agus Castellsek zabaldua 24-4-77an.

Dirudienez, haizta honetan zabaldu zen lehen. Ogoñoeko eskalada ezagutzen ez dutenentzat, hasteko aproposa. Bide polita eta harri ona.

**9 MUTATA** bidea (G.Z. beheti)

Monty, Taber eta Zuluk zabaldua 24-9-85an.

Hasierara iristeko, «De las gaviotas» bidea hasten den tokitik bi rappel egin beheneko errepisaraino. Hirugarren luzea aluzinantea.

**FITXA TEKNIKOA**

**Ogoñora iristeko:** Ibarangelura joan, hemendik Elantxobeko hilerria helduz, bere eskubian dagoen bidea hartu, eta malda gogor bat igo ondoren, aurrerantz doan pista jarraitu, Ogoñoeko gailurrera doan bideskaraino (autoa hemen utzi). Bideska hori jarraituz, gailur azpian, ezkerrera joaten den beste bideska hartu eta orma azpitik, eskalatzeko bideak hasten diren tokira heldu.

**Kontuan izan:** O.Z., oso zaila eta G.Z., guztik zaila adierazten dutela (MD eta ED gaztelerez).

**Bideak ekipatu dituztenak** PATXI AZPIROZ eta JOSU GARTZIA izan dira 8 mmtako spitegaz.

**Bibliografia:** Pyrenaica 123 zenb. (1981) 244 orr.

**OHARRA**

Beno, Ogoñoeko arteka eta diedrotan eskalada onak eginen dituzelakoan, eta..., kaiok habiak ipintzen dituztenean (Maiatzetik Abuztura biak barne) *bakean utziko dituzelakoan...*, gero arte bonaparte, agur ben ur, eta ikusiko gara, ziur!!!

**VIAS DE OGOÑO**

N.º	Nombre	Dificultad	Largos	Apertura
1	MAILUA .....	M.D.	3	1986
2	IZARO IRLA .....	M.D.	3	1986
3	AMAGOIA .....	E.D. int.	4	1990
4	JAI EGIN .....	E.D. inf.	3	1981
5	INTERROGAZIOA .....	M.D. sup.	4	
6	CABALLO QUE RIE/ INDEPENDENTZIA .....	E.D. inf.	4	1982
7	KAIO KUME .....	M.D. sup.	4	1990
8	DE LAS GAVIOTAS .....	M.D.	3	1977
9	MUTATA .....	E.D. inf.	4	1985

**NOTA**

Se ruega no escalar en Ogoño entre los meses de mayo y agosto, época en la que están nidificando las gaviotas.

